

1979-V-25

Iruñean, Nafarroako Erakustokian, 1979. eko Maiatzaren 25ean, Goizeko hamaika eta erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. L. Davant, X. Diharce, D. Intza, A. Irigaray, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. Acha, J. Basterretxea, R. Camblong, P. Charritton, J. Estornes Lasa, J. Fernández Setien, M. Garde, J. L. Lizundia, J. Oregi, J. M. Torrealday, P. Zabaleta eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Goizean zuzendaritzakoen bilkura egin da lehenik zenbait puntu zehaztuz. Nafarroako elebitasunaren egoerari erantzuna emanez agiri bat irakurtzea erabaki da.

Camara de Comptos-en emana ziguten ordezkaritza kentzen zaigula adieraziz mintzatu berri da Diputazioko lehendakaria Villasante euskaltzainburuarekin. Horren ordezkari Nafarroako Erakustokian egongo omen gara beste tokien bat aurkitu arte. Aretoa beste gela batekin eman digute. Ez da, beraz, prestaturik zegoen gure ordezkaritza estreinatzerik izan.

Bezperan izana zen Zuzendaritzakoen batzordea Amadeo Marko jaunaren agurtzen Nabaskozen. Berak sortua zuen ofizialki Euskaltzaindiaren ordezkaritza, eta esker oneko diploma bat eman dio euskaltzainburuak.

Batzar irekian lau nafar euskaltzaleen ehun urteburua ospatu da. Malon diputatu jaunaren ongietorriarekin nasi da batzarra, Nafarroako Erakustokian.

Aita Villasante euskaltzainburuak, agurtu ditu gero entzuleak.

Juan Etxamendi, Luzaideko "Bordel" bertsoalariak mintzatu da J. M. Satrustegi; Bidankozeko, Prudentzio Hualderen berri eman du J. San Martinek; Kaparrosoko, Zelestino Peralta "Arrigarai" gogoratu du. A. Irigaray jaunak; Azkenekoz, aita Bonifazio Ataungoa, Lezoko aita Jose Iturria arantzarrak mintzatu da.

Batzarrari bukaera emateko J. I. del Burgo, Diputazioko lehendakariak bere txostena irakurri du.

Bazkal ondoan Bizente Galbete, "Príncipe de Viana" elkargoko zuzendariak, bere ahaide Arturo Kanpionen nortasun eta bizi pasartez txostena irakurri du. J. A. Arana Martijak eman dio erantzuna.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

*Luis Villasante*

*Idazkaria*

*J. M. Satrustegi*